

KOSTUEN SEGMENTAZIOA

Edozein enpresa, negozio edo dendaren zati garrantzitsuenetarikoa bezeroen zatia da. Gurean ere oso garrantzitsuak dira bezeroak beraiek gabe ez baigina ezer izango. Edozein publiko motari dago eskainia geure janaria, gazteenetatik hasita pertsona helduetaraino, beraz, merkatu masiboa da gurea. publiko orokorrari zuzentzen zaizkion negozio ereduak, ez dute merkatua segmentutan banatzen. Beraz, balio proposamena, banaketa eta baita bezeroekiko harremana ere antzeko arazo eta beharrak dituzten bezero talde handi bati zuzentzen zaio, bereizketarik egin gabe. Negozio eredu hau oso ohikoa da. Gainera presaka dabilzan bezeroentzako abantaila ugari ditugu, fast food kate bat denez 5 minutu baina gutxigoan beraien otordua edukiko dute bakoitzaren eskuetan eta prezio herrikoietan, hau da, edozeinek onar ditzazke gure negozioko prezioak. Honek bezero gazteagotara hurbiltzen gaita haiek ez baitute dirua lortzeko aukerarik eta geure prezioak duten “pagarekin” bat egiten dute. Gainera N-1 errepide nazionalaren sarrera eta irteera paregabeak ditugu eta parking handia, beraz, bidaiatzen dauden famili eta pertsonentzako leku aproposena da. Gidariak deskantsatu dezan edo hankak estira ditzan denbora gutxian janaria tradizional azkarra jaten duten bitartean.

Ez dugu nahi gure enpresan jende pilaketarik egotea beraz bezeroen joan etorri bat egotea nahi dugu horretarako marketing estrategiak erabiltzen ditugu. Kristalera deserosoak kanpotik jendeak ikus ditzan eta deseroso senti daitezen, mahi eta aulki deserosoak erabiltzen ditugu eta ditugun megafonoetan ez da musikarik egongo , jende askoren soinua baizik. autoz datozen bezeroei ere eskaintzen diegu mcAuto zerbitzua.

Laburbilduz, gure bezeroaren ezaugarriak hurrengo hauek dira:

- presaka ibiltzea
- denbora gutxian jatea
- bidaian datozen bezeroak(KOTXEZ)